

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea 2020ko ekitaldian kreditu gehigarri bidez aurrekontua aldatzeko espedienteari

Ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 6/2020 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka. Beraz, Toki Erakundearen Aurrekontuen 3/2004 Foru Arauak 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, espediente hori behin betiko onesten da, honela:

Kreditu gehigarria, honako aurrekontu aplikazioetarako:

912.100.00	4.000,00	Kreditu gehigarria handitzea
912.160.01	1.200,00	Kreditu gehigarria handitzea

Kreditu gehigarria gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin positiboaren kontura finantzatuta dago.

Erabaki honen aurka, zeinak Udalaren aurrekontu orokorra behin betiko onesten baitu, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2020ko irailaren 30a

Alkatea

SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO